upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Consejo de Gobierno / Gobernu Kontseilua
Sesión / Bilera 24-3-2020



**ACUERDO POR EL QUE SE ESTABLECEN LOS LÍMITES DE ADMISIÓN A LOS PROGRAMAS INTERNACIONALES DE LOS ESTUDIOS DE GRADO PARA EL CURSO 2020/2021**

El Consejo de Gobierno, en sesión celebrada el 23 de mayo de 2016 aprobó el Acuerdo por el que se establecen los criterios básicos que han de cumplir los programas docentes internacionales de los estudios de grado y máster de la Universidad Pública de Navarra.

En el art. 9.1 de dicho Acuerdo se establece que las Comisiones Académicas de los Programas Internacionales de cada una de las titulaciones, previa aprobación por los Centros correspondientes, son las competentes para proponer a la Vicerrectora de Enseñanzas el límite de plazas de admisión a estos programas y que dicho límite se aprobará mediante Acuerdo de Consejo de Gobierno simultáneamente a la aprobación de los límites de plazas para el acceso a titulaciones oficiales.

El Consejo de Gobierno, en sesión celebrada el 13 de febrero de 2020 aprobó los límites de plazas de nuevo acceso a las titulaciones oficiales de la Universidad Pública de Navarra y los cupos de reserva para el curso 2020/2021.

En ese mismo Consejo de Gobierno, se ha aprobado la normativa reguladora del Programa Internacional del Doble Grado en Maestro en Educación Infantil y en Maestro en Educación Primaria, cuya implantación se prevé que comience en el próximo curso 2020/2021.

Vistas las propuestas realizadas por las Comisiones Académicas de los Programas Internacionales y su posterior aprobación en las Juntas de los respectivos Centros, a propuesta de la Vicerrectora de Enseñanzas, en sesión celebrada el día 24 de marzo de 2020, el Consejo de Gobierno de la Universidad adopta el siguiente:

## ACUERDO

**Primero.-** Aprobar los límites de admisión a los Programas Internacionales de los estudios de grado para el curso 2020/2021, que son los siguientes:

**ERABAKIA, 2020-2021 IKASTURTEAN GRADUKO IKASKETETAKO NAZIOARTEKO PROGRAMETAN SARTZEKO ONARPEN-MUGAK ONESTEN DITUENA**

Gobernu Kontseiluak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bileran, erabaki bat onetsi zuen Nafarroako Unibertsitate Publikoko graduko eta masterreko ikasketetako nazioarteko irakaskuntza-programek bete behar dituzten oinarrizko irizpideak ezartzeko.

Aipatu erabakiaren 9.1 artikuluak xedatzen duenez, titulazio bakoitzeko nazioarteko programetako irakaskuntza-batzordeek eskumena dute, dagokien ikastegiek aldez aurretik onetsi eta gero, Irakaskuntzako errektoreordeari programa horretan onartua izateko ikaspostuen kopuruaren muga proposatzeko, eta muga hori Gobernu Kontseiluaren erabaki baten bidez onetsiko da, titulazio ofizialetan sartzeko ikaspostuen muga onesten den aldi berean.

Gobernu Kontseiluak, 2020ko otsailaren 13an egindako bileran, onetsi egin zituen 2020-2021 ikasturtean Nafarroako Unibertsitate Publikoko titulazio ofizialetan sartzeko ikaspostuen kopuruaren mugak eta erreserba-kupoak.

Gobernu Kontseilu horretan bertan, Lehen Hezkuntzako Irakasletzako eta Haur Hezkuntzako Irakasletzako Gradu Bikoitzaren Nazioarteko Programaren Araudia onetsi da. Aurreikusita dago 2020-2021 ikasturtean ezartzea programa hori.

Ikusirik nazioarteko programetako irakaskuntza-batzordeek egindako proposamenak eta ikastegietako batzordeek ondoren proposamen horiek onetsi dituztela, eta Irakaskuntzako errektoreordeak proposaturik, honako hau da Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2020ko martxoaren 24an egindako bileran hartu duen

## ERABAKIA

**Lehena.-** 2020-2021 ikasturtean graduko ikasketetako nazioarteko programetan sartzeko onarpen-mugak onestea. Hauek izango dira:

| **PROGRAMAS INTERNACIONALES**<br>**NAZIOARTEKO PROGRAMAK** | **PLAZAS**<br>**IKASPOSTUAK** |
|---|---|
| Progr. Intnal. del Grado en Administración y Dirección de Empresas<br>Enpresen Administrazioko eta Zuzendaritzako Graduko Nazioarteko Programa | 25 |
| Progr. Intnal. del Doble Grado en Administración y Dirección de Empresas y Economía<br>Enpresen Administrazioko eta Zuzendaritzako eta Ekonomiako Gradu Bikoitzaren Nazioarteko Programa | 25 |
| Progr. Intnal. del Doble Grado en Administración y Dirección de Empresas y Derecho<br>Enpresen Administrazioko eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitzeko Nazioarteko Programa | 15 |
| Progr. Intnal. del Grado en Maestro en Educación Infantil | 15 |

| | |
|---|---|
| Haur Hezkuntzako Irakasletzako Graduko Nazioarteko Programa | |
| Progr. Intnal. del Grado en Maestro en Educación Primaria<br>Lehen Hezkuntzako Irakasletzako Graduko Nazioarteko Programa | 35 |
| Progr. Intnal. del Doble Grado en Maestro en Educación Infantil y Maestro en Educación Primaria<br>Lehen Hezkuntzako Irakasletzako eta Haur Hezkuntzako Irakasletzako Gradu Bikoitzaren Nazioarteko Programa | 15 |
| Progr. Intnal. del Grado en Ingeniería Informática<br>Ingeniaritza Informatikoko Graduko Nazioarteko Programa | 25 |
| Progr. Intnal. del Grado en Ingeniería de Tecnologías Industriales<br>Industria Teknologien Ingeniaritzako Graduko Nazioarteko Programa | 40 |
| Progr. Intnal. del Grado en Ingeniería de Tecnologías de Telecomunicación<br>Telekomunikazioaren Teknologien Ingeniaritzako Graduko Nazioarteko Programa | 15 |

**Segundo**.- Las plazas señaladas en el punto anterior están incluidas en los límites aprobados en el Consejo de Gobierno de 13 de febrero de 2020.

**Bigarrena.-** Aurreko puntuan adierazitako ikaspostuak Gobernu Kontseiluak 2020ko otsailaren 13ko bileran onetsitako mugen barnean daude.

**Tercero.-** Trasladar el presente acuerdo a la Vicerrectora de Enseñanzas, a la Vicerrectora de Estudiantes, Empleo y Emprendimiento, a los Decanos y Directores de los Centros afectados y al Servicio de Enseñanzas. Publicar el presente Acuerdo en el Tablón Electrónico de la Universidad Pública de Navarra.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau helaraztea Irakaskuntzako errektoreordeari, Ikasleen Gaietarako, Enpleguko eta Ekintzailetzako errektoreordeari, ukitutako ikastegietako dekano eta zuzendariei eta Irakaskuntza Zerbitzuari. Erabaki hau Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki-ohol elektronikoan argitaratzea.

**Cuarto**.- A tenor de lo establecido en el artículo 6.4 de la Ley Orgánica 6/2001 de Universidades y en el artículo 144.1 de los Estatutos de la Universidad, el presente acuerdo agota la vía administrativa. Contra el mismo los interesados podrán interponer potestativamente recurso de reposición ante el Consejo de Gobierno en el plazo de un mes, o directamente recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de dicho orden.

**Laugarrena.-** Unibertsitateei buruzko 6/2001 Lege Organikoaren 6.4 artikuluak eta Unibertsitatearen Estatutuen 144.1 artikuluak ezarritakoaren arabera, erabaki honek administrazio bidea agortzen du. Interesdunek zilegi dute erabaki honen aurka, aukeran, berraztertzeko errekurtsoa jartzea Gobernu Kontseiluaren aurrean, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa administrazioarekiko auzien epaitegietan, zuzenean.

El Presidente / Kontseiluburua

16571635C GONZALO GARCIA (R: Q3150012G)

Firmado digitalmente por 16571635C GONZALO GARCIA (R: Q3150012G)
Fecha: 2020.03.26 12:01:18 +01'00'

Ramón Gonzalo García
Rector/Errektorea